



Esp. Zk. SUBV_EVAL_INDIV/2025/12

2025/2026an eskola-jantokiak diruz laguntzeko deialdia

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)n, [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdi hau Iruñeko familiei jantokirako dirulaguntzak ematera zuzenduta dago –errentaren, familia-unitateko kide-kopuruaren eta lan-egoeraren arabera–, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleentzat (3 – 12 urte), oinarri hauetan ezarritako baldintzekin eta betekizunekin bat, 2025-2026ko ikasturterako.
2. Deialdiaren helburua: Deialdi honen helburua da, Udalak gizartearen esparruan duen ardurari eutsiz, arazo ekonomiko, familiar edo sozialak direla medio zaurgarritasun-egoeran dauden haurrek eskola-jantokian bazkaldu ahal izan dezaten ahalbidetzea. Halaber, luzera begira, xede du haurren eskola-errendimendua eta garapen pertsonala hobetzea, elikadura-aztura osasungarriak sustatzea eta arrazoi ekonomikoek hezkuntza-komunitateko haurren artean eragiten ahal duten bazterkeria ekiditen saiatzea.
3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak: - Dirulaguntza hauek ikastetxeko jantokien gastuei aurre egiteko ematen dira, eta ez, ezein kasutan ere, ikastetxe batzuek eskaintzen duten “zakote-ontzi” zerbitzua diruz laguntzeko. - Jaso beharreko zenbatekoa honako hauen arabera zedarrituko da: deialdiaren D.1. apartatuan familia-unitate eskatzaileentzat ezarritako diru-sarreraren eta ondarearen mugen arabera eta deialdiaren D.1. Apartatuko akordioan azken tarterako ezarritako bateratze-baldintza betetzen den edo ez aintzat hartuta. - Prestazio hau beste erakundeek edo entitateek (Nafarroako Gobernuak, enpresen hobari sozialak, etab.) emandako laguntzen eta familiak berak kontzeptu horretarako egindako ekarpenaren osagarri izanen da. Bateragarritasun horretatik salbuetsita dago Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Bereziko ikastetxeetako ikasleei emandako dirulaguntza. - Dirulaguntzaren zenbatekoa behar den orotan aldatzen ahalko da, F apartatuan ezarritakoarekin bat. Era berean, D.1 apartatuan ezarritako salbuespenezko kasuetan, deialdi honetan ezarritakoa baino aldi laburrago baterako xedatzen ahalko da dirulaguntza (ikasturtea).



4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

- Dirulaguntzak emateko, kontuan hartuko da hartzaileek deialdi honetako baldintzak betetzen dituztenetz. Halaber, familia-unitateen errentak ezin ditu gainditu deialdi honen D.1) apartatuan familia-unitateendako diru-sarreraren muga gisa ezarritako tarteak.

- Deialdi honetan onuradun izateko galdatutako betekizunak betetzen dituzten eskaerak aurkeztu ahala emanen dira laguntzak, eta, betiere, eskaerak asetzeko aurrekontu-kontsignazioak iraun bitartean.

- Dirulaguntzak ikasturteak irauten duen eperako emanen dira, 2025eko irailetik 2026ko ekainera. Epe hori lehenago amaituko da honako kasuren batean:

1- Ikastetxeek edo dirulaguntzaren kudeatzaileek jakinaraztea adingabekoari baja eman diotela jantoki zerbitzuan.

2- Familia eskatzaileak jakinaraztea jantoki zerbitzuan adingabekoari baja eman zaiola.

3- Familia eskatzaileak dirulaguntzari uko egitea.

4- Dirulaguntzak bukaera-data jakin bat edukitzea.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 870.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Jaso beharreko dirulaguntzen zenbatekoa familia-unitate eskatzaileen diru-sarreraren arabera zehaztuko da, betiere deialdi honen D.1) apartatuaren 4. zerbakian ezarritako mugekin bat.

Honako dirulaguntza-tarte hauek ezarri dira familia-unitate eskatzaileen diru-sarreraren muga arabera:

1. tarte: 1,80 €/egun

2. tarte: 1,40 €/egun

3. tarte: 1 €/egun

4. tarte: 0,60 €/egun

5. tarte (bateratze-baldintza): 0,30 €/egun

5. tarte familia eta lana bateragarri egiteko beharra dutela justifikatzen duten familia-unitateen kasuan bakarrik baloratuko da.

Zaintza partekatuen kasuetan, dirulaguntza eskatu duten gurasoetako bakoitzak osatzen duen familia-unitate bakoitzari dagokion zenbatekoa –baldin eta onuraduntzat hartzeko betekizunak betetzen badituzte– kasu zehatzaren arabera dagokiona izanen da, dagokion dirulaguntza-tartearen arabera.

Edonola ere, ezin izanen du inolaz ere gainditu deialdi honetan aurreikusitako gehieneko dirulaguntza, hau da, 1,80 euro haur eta egun bakoitzeko.

Gurasoek osatzen dituzten familia-unitateetatik bakarrak betetzen baditu dirulaguntzak jasotzeko betekizunak (errola, diru-sarreraren baremoa edo bestelako arrazoiak direla-eta), dirulaguntzaren zenbatekoa lehenengo unitate horri dagokion tartearen erdia izanen da.

Ikastetxe itunduen kasuan, hurrek eskola-jantokiak berdintasun-baldintzetan erabil ditzaten, Nafarroako Gobernuak ikastetxe publikoetan egoera ahulean dauden familiei ematen dien dirulaguntzaren % 50ekin



BANAKAKO EBALUAZIOA

osatuko da Udalaren banakako dirulaguntza.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izanen du, inongo kasutan ere, jantokiko kostua gaintitu. Jaso beharreko dirulaguntzaren benetako zenbatekoa jantokira bertaratutako egunen arabera kalkulatu da.

4. Urte anitzeko deialdia: ☒ BAI ☐ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	370.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa (2026)	500.000 €	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Egiatzko auzotasuna Iruñean edukitzea eta bertan erroldatua izatea (hala eskatzaileak nola familia-unitatea osatzen duten haurrak) gutxienez dirulaguntza jasotzen hasi baino 6 hilabete lehenagotik eta hura jasotzen den bitartean. Familiak berriz elkartzeko prozesutik datozen haurren kasuan, salbuetsita egonen dira, jantokira sartzeari dagokionez, erroldan lehenagotik izena emanda izateko baldintza betetzetik.

2. Kontzeptu berberetan eta helburu horretarako Administrazioaren beste hainbat esparrutan ezarritako laguntzak edota baliabideak eskatu izana. Hezkuntzako behar bereziak izanda ikastetxe arruntetan eskolaturik dauden haurren kasuan, Hezkuntza Ministerioari eskatu behar zaio laguntza, dagokion deialdian. Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolaturik daudenek Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari ere eskatu behar diote laguntza, eta hori bateraezina da deialdi honekin.

3. Haien kargura edukitzea 2025-2026ko ikasturtean eskolaturik dauden haurrak (Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan), ikastetxe publiko edo itundu batean matrikulatuta.

4. Familiaren diru-sarrerak ez gaintitzea familia-unitatearen diru-sarreraren muga gisa jarraian ezartzen direnak:

Kide-kopurua	1. tarte	2. tarte	3. tarte	4. tarte	5. tarte (Bateratze-baldintza)
2	12.803	13.621	14.492	15.419	20.482
3	15.173	16.143	17.176	18.275	26.705
4	16.595	17.655	18.784	19.986	28.387
5	18.018	19.170	20.398	21.703	30.175
6 edo gehiago	18.966	20.179	21.471	22.845	31.690

Taula egiteko, Errenta Bermatua eta haren eguneraketaren ehunekoa hartzen dira erreferentzia gisa.

Kalkulua egiteko, azkeneko Errenta Aitorpenean (529 laukia) agertzen diren zerga-oinarriaren (507 laukia) atal orokorra, aurrezkiaren likidazio-oinarria (8840/8841 laukiak) eta salbuetsitako errentak batuta lortutako emaitza hartuko da kontuan.

Zenbaketatik salbuetsita egonen dira familian bertan zaintzeko laguntza ekonomikoak eta GSINek



desgaitasuna duen seme/alaba baten kargu egiteagatik ematen duen prestazioa.

5. tarte aplikatuko zaie, nahiz eta aurreko tarteetan (1etik 4ra) ezarritako errenta gainditu, familia eta lana bateragarri egiteko jantokia erabiltzeko beharra dutela justifikatzen duten familiei, apartatu honetako 6.3 puntuan ezarritakoarekin bat.

5. Familia onuradun izateko unitatearen ondasun-muga.

Familia-unitatearen ondareak ezin izanen ditu honako kontzeptu eta muga hauek gainditu:

- a) Ohiko etxebizitza eta hari atxikitakoak, bertako altzariak, etxeko hornidurak eta ohiko joan-etorrietarako ibilgailuak; horrek guztiak batuta gehienez ere 300.000 euro joko du.
- b) Lan- edo enpresa-jarduna garatzeko beharrezko instrumentuak diren ondasunak, eta jardun hori izatea familia-unitatearen diru-sarrera iturri nagusia.
- c) Eskatzailearen familia-unitatearen ondasun higigarriak, Errenta Bermatuaren balioaren % 65eraino, kide bakarreko familia-unitate baterako eta urteko datuak kontuan hartuta.

6. Honako arauak ezartzen dira familia-unitateari dagokionez:

1) Familia-unitatetzat joko da, deialdi honen ondorioetarako, eskatzaileak eta, hala badagokio, ezkontide-harremanean edo antzeko lotura afektiboan loturik dagoen pertsonak osatzen dutena, eta haiekin bizi diren seme-alabak (kontuan hartu gabe hurrekin duten aitatasun- edo amatasun-harremana zein den), edo tutoreak eta anai-arrebak.

2) Familia-nukleo baten kide-kopurua zehazteko, kontuan hartuko da zenbat kide dituen familia-unitateak eskaera egiten duen unean.

Aurrekoa gorabehera, beste kide bat gehiago konputatuko da honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean, familia-nukleoaren kide kopurua zehazteko: guraso bakarreko familiak, familia ugariak eta desgaitasuna duen kideren bat dutenak, beti ere egoera hori egiaztatuta badago.

Zaintza partekatuko kasuak ez dira joko guraso bakarreko familiatzat aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako. Kasu horietan, gurasoetako bakoitzaren egoera ekonomikoa baloratuko da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko, C.3 apartatuan ezarritakoarekin bat, bi gurasoen artean banatuta.

3) Deialdiaren 5. tarte sartzeko exijitzen den bateratze-baldintza frogatzeko beharrezkoa izanen da familia-unitateko helduek eta haurren arduradunek behar bezala justifikatzea haien lan-jarduera eguneko gutxienez 4 ordukoa dela, edo 4 ordu baino gutxiagokoa izanik, haurrak bazkalorduan zaintzeko tartearekin bat egiten duela. Egoera hori behar bezala justifikatu beharko da.

4) Familia-nukleoaren diru-sarrerak kalkulatzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- Diru-sarrerei etxebizitza gastuen % 70eko deskontua egingen zaie. Ezin izanen da deskontatu, inolaz ere, alokairuaren kostua baino zenbateko handiagorik.
- Etxebizitzan familia bakarrik bizi den kasuetan, eta alokairuaren kontratuaren edo hipotekaren titularrak badira, alokairuaren edo hipotekaren hileroko kostuaren % 70 deskontatuko da. Etxebizitzako gela bat edo bat baino gehiago azpierrentan emanda dutenen kasuetan, kontzeptu horren bidez lortutako diru-sarrera alokairuaren edo hipotekaren kostutik deskontatuko da. Lortutako zenbatekoari aipatutako ehunekoa (% 70) aplikatuko zaio, dagokion kenkaria aplikatzeko.
- PFEZaren gaineko aitorpena egiteko betebeharrak ez duten eskatzaileendako, errenta konputagarria dagokion urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien batura izanen da.
- Halaber, kontuan hartuko dira familia-nukleoan bizi diren adingabeek jasotzen dituzten mantenu-pentsioak, nahiz eta adingabe horiek ez izan dirulaguntza honen onuradunak, bai eta senideen arteko beste mantenu-pentsio batzuk ere, horien hartzailea familia-nukleoko kide bada.

5) Egoera bereziak:



BANAKAKO EBALUAZIOA

A- Prebentzio-neurria. Kontuan hartuko da jantoki zerbitzua prebentzio- eta babes-neurri bat den haurrendako, bai eta hurrek orokortzeko zaila den tratamendu berezia behar duten ere. Halako kasuetan, salbuespen bat egiten ahalko da deialdi honetan ezarritako muga ekonomikoetan eta erroldaren antzinasunean, betiere kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan harturik eta horretarako balorazio teknikoko txostena egin ondoren.

B- Kostuaren % 100 diruz laguntzea esku-hartze sozialeko plangintza baten ondorioz. Aintzat hartzen ahalko da, halaber, dirulaguntzak salbuespenez eskola-jantokiko erabiltzailearen kostuaren % 100 estaltzea, betiere aldeztu aurretik egoeraren berri ematen duen gizarte-txostena emanda eta familia-unitatearekin gauzatzen ari den esku hartzeko plangintza aurkeztuta. % 100 ematen den dirulaguntzetan Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza deskontatuko da, bi laguntzek % 100 egin arte.

C- Ekonomia-egoera larriagotzea. Salbuespen gisa, 2025eko urtarrilaren 1etik edo 2026ko urtarriletik aitzina diru-sarreretan –langabezia, familia-egoeraren aldaketa, etab. direla medio– murrizketa handiak izan eta halakorik eskaeretan adierazi duten familien kasuan, egoera berriari dagozkion diru-sarrerak baloratzen ahalko dira, betiere murrizketa horren arrazoiak egiaztatzen duten agiriak aurkezten badituzte. Edonola ere, indarrean dagoen errenta aitortpena erantsi behar dute.

Egoera berriari dagozkion diru-sarrerak baloratzeko, horiek behar bezala justifikatu beharko dira, kasuan kasuko aldiaren jasotako zenbatekoei buruz erakunde publikoek edo enpresek eman beharreko honako ziurtagiri hauen bidez: nominak; Estatuko Enplegu Zerbitzuaren egiaztagiria –langabezia-prestazioa edo -sorospena jasotzen dituztenen kasuan–, mantenu-pentsioa egiaztatzekoa, edo, kasuan-kasuan, beste egiaztagiri batzuk. Kasu horretan, errenta konputagarria honela kalkulatu da: eskaera aurkeztu eta aurreko 6 hilabeteetan izandako diru-sarrera osoen batuketan gehi errenta-aitortpenaren 529, 8840 eta 8841 epigrafeetako diru-sarrerak, salbu egiaztatutako gelditzen bada horiek ez direla jaso atal honetan aipatutako aldiaren.

* Egoera berezien balorazioa:

Salbuespen egoera horietan egindako proposamen zehatzak Balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Honako hauek osatuko dute batzordea: Alorreko zuzendaritza, Haurtzaro eta Familiako arduraduna eta prestazio ekonomiko hau baloratzeko ardura duen teknikaria. Kasu horietan deialdi honetan dirulaguntzetarako ezarritakoa baino iraupen laburragoa ezartzen ahalko da. Behin Batzordeak salbuespen hori aplikatzeko ezarritako epea amaituta, deialdi honetan ezarritako dirulaguntza-tartea aplikatuko da deialdi honen epearen amaierara arte, salbu eta salbuespen berri baten balorazioa justifikatzen duen gizarte-txostena aurkezten bada.

* Deialdi honetan eskola-jantokien kudeatzaile gisa parte hartzen duten Ikastetxeak eta Ikasleen Guraso Elkarteak, bai eta jantokiaren enpresa kudeatzaileak ere, kasuan-kasuan, entitate kudeatzaileetat joko dira, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak entitate kudeatzaileendako arautzen duena aplikatuko zaie aplikagarri den heinean.

* Eskaerak berekin ekarriko du datu pertsonaletara sartzeko baimena, eta horrela ahalbidetuko da udal-teknikariak sartu ahal izatea Udal Erroldan, Udal Katastro eta zergetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitortpenean eta Datu Fiskaletan, Lan bizitzaren egiaztagirian, Pentsioaren egiaztagirian eta Estatuko Enplegu Zerbitzuaren prestazioen egiaztagirian, Nafarroako Gobernuaren Errenta Bermatuan eta Nafarroako Gobernuaren Merkataritza zein Kooperatiben Erregistroetan.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☒ BAI ☐ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- Jantokira joatea. Inongo kasutan ere ez dira dirulaguntzaren barruan sartuko ikaslea jantokira joan ez den egunak, eta horiek benetan jaso beharreko laguntza-kopurutik deskontatuko dira.

- Entitate kudeatzaileei lagatzea dirulaguntzaren kasuan kasuko zenbatekoa kobratzeko eskubidea.

- Kasu guztietan, familiek beren egoera baloratzeko eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, eta Gizarte Ekintzako Alorrari jakinarazi beharko dizkiote beren egoera sozioekonomikoan eta laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretan izan diren aldaketak oro, egoki izanez gero jasotzen duten dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzeko, F apartatuan ezarritakoarekin bat, edo are dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzeko ere (eroldari eragiten dion etxebizitza-aldaketa, egoera ekonomikoaren aldaketa, etab.).

- Iruñeko Udalak egiaztapenak egiten ahalko ditu, ausaz, egiaztatzeko dirulaguntza zein alditarako eman eta aldi horretan guztian zehar betetzen direla eskola-jantokiko dirulaguntza jasotzeko bete behar diren betekizunak, eta onuradunek egiaztatze horretan lagundu beharko dute.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUKO ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntza emateko balorazioan aintzat hartu diren inguruabarren aldaketen ondoriozko moldaketak eginen dira. Kasu horretan, behin egoera zein den jakinda, laguntzaren gaineko beste balorazio bat



eginen da dagokion aldaketarekin, halakorik balitz.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Dirulaguntzetarako eskabideak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

Interesa duten familiek eskaera egin beharko dute, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako lekuetan edo Gizarte Ekintzako Alorraren zerbitzuetan (Zapateria kaleko 40. zenbakia), arreta-ordutegi honekin bat: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, eta bi zatitan banatuko da:

- 1. eskola-aldia, 2024ko irailaren 1etik abenduaren 31 bitarte: eskaerak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da.
- 2. eskola-aldia, 2026ko urtarrilaren 2tik ekainera bitarte: eskaerak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 30ean amaituko da, betiere 1. Eskola-aldian urte osokoa ez bada aurkeztu eta baldintzek bere horretan badiraute.

Lehen eskola-aldian egiten diren eskabideak ikasturte osoan indarrean daudela jotzen da, baldintzak berak diren bitartean.

Dirulaguntza emateak atzeraeragina izanzen du, ikaslea jantokira joaten den eskola-aldi bakoitzaren hasieratik: iraila edo urtarrila.

Salbuespen gisa, ezarritako epeetatik kanpo aurkezten diren eskaerak kontuan hartuko dira baldin eta salbuespenezko egoera justifikatzen duen udal-teknikarien txosten sozial batek bideratu eta bermatzen baditu, eta, betiere, horretarako ezarritako epean eskatzeko aukerarik izan ez bada.

Aipatutako epeetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean hutsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.



Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

- Eskatzailearen NANA/IAEa/Pasaportea.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzen duena eskatzaileak betetzen dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ez diola ezein debeku-ziok eragiten Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnetatik.

c) Agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzeko:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☒ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

g) Familia-liburua edo, hala badagokio, hori ordezkatzeko duten agiriak.

h) Bizikidetzaren unitateko kideen (aita edo ama eta horien ezkontide edo izatezko bikote berriak) 2024. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpena, datu fiskalak barne. Ez badute errenta-aitorpena egiteko betebeharrak, familia-unitatearen diru-sarreraren egiaztatzea edo dokumentuak aurkeztu behar ditu (nominak, kontratuak, aitorpenak, etab.). Kasu horretan, errenta konputagarria dagokion urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien batura izanen da.

i) Salbuespen gisa, 2025eko urtarrilaren 1etik edo 2026ko urtarrilaren 1etik aitzina diru-sarreretan murrizketa handiak izan dituzten familiek –langabezia, familia-egoeraren aldaketa, etab. direla medio– hori adierazi beharko dute eskabideetan. Edonola ere, 2024ko errenta-aitorpena eta diru-sarrerak murriztu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko dituzte, kasuan kasuko aldiari jasotako zenbatekoei buruz erakunde publikoek edo enpresek eman beharreko honako ziurtagiri hauen bidez:



BANAKAKO EBALUAZIOA

nominak; Estatuko Enplegu Zerbitzuaren egiaztagiria –langabezia-prestazioa edo -sorospena jasotzen dituztenen kasuan–, mantenu-pentsioa egiaztatzekoa, edo, kasuan-kasuan, beste egiaztagiri batzuk. Kasu horretan, errenta konputagarria honela kalkulatu da: eskaera aurkeztu eta aurreko 6 hilabeteetan izandako diru-sarrerara osoen batuketa gehi errenta-aitorpenaren 529, 8840 eta 8841 epigrafeetako diru-sarrerak, salbu egiaztaturik gelditzen bada horiek ez direla jaso atal honetan aipatutako aldian.

j) Autonomoen kasuan, urte osoko hiru hilez behingo BEZaren aitortpena, indarrean dagoen urteko errenta-aitortpenean ez badago.

k) Banantzeetan, dibortzioetan edo izatezko bikotea desagiten den kasuetan, epaiaren eta hitzarmen arauemailearen kopiak aurkeztu beharko dira, bai eta epaian ezarritako diru-ekarpenen banku-egiaztagiriak ere.

Mantenu-pentsioa ez bada ordaintzen ari, epaitegian epaia betearazteko aurkeztutako eskaeraren kopia edo jarduketak abiarazi izanaren egiaztagiria.

Bikote egonkorak hausten badira eta eskatzaileak egoera hori kontuan hartzea nahi badu, ezkontzaz kanpoko seme edo alabagatik neurri buruzko hitzarmen arautzailea aurkeztu beharko du.

l) Hipoteka- edo alokairu-gastuen azken hiru ordainagiriak gutxienez ordaindu izanaren gaineko ziurtagiriak eta errentamendu-kontratua.

m) Desgaituen kasuan, desgaitasun-mailaren ziurtagiria aurkeztu behar da. Guraso bakarreko familien edo familia ugarien kasuan, egoera hori egiaztatzen duen agiria.

n) 5. tarterako aukera dutenen kasuan (bateratze-baldintza), lan-kontratua edota enpresaren agiria lanaldiaren iraupena eta ordutegia adierazita.

ñ) Horrez gain, Udalak eskatzailearen egoera sozial edota ekonomikoa egiaztatzeko eta oinarri hauetan ezarritako betekizunak baloratzeko beharrezkoak izan daitezkeen intereseko agiri oro eskatzen ahalko ditu.

Zaintza partekatuen kasuetan, eskaera bakar bat aurkeztu beharko da, titular bakar baten izenean, ezertan galarazi gabe aurkeztu behar izatea hala deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak nola amaren eta aitaren diru-sarrerak, eta haiei dagozkien familia-unitateenak, bakoitzari emanen zaion dirulaguntzaren kopurua baloratu ahal izateko, C.3 apartatuan jasotakoarekin bat.

Eskaerak berekin ekarriko du datu pertsonaletara sartzeko baimena, eta horrela ahalbidetuko da udal-teknikariak sartu ahal izatea Udal Erroldan, Udal Katastro eta zergetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenean eta Datu Fiskaletan, Lan bizitzaren egiaztagirian, Pentsioaren egiaztagirian eta Estatuko Enplegu Zerbitzuaren prestazioen egiaztagirian, Nafarroako Gobernuaren Errenta Bermatuan eta Nafarroako Gobernuaren Merkataritza zein Kooperatiben Erregistroetan.

Baimen hori dirulaguntza honen ebazpena baloratzeko egiaztapen- eta kontsulta-ondorioetarako baino ez da eskatzen. Kontsultatutako datuek ez dute ordeztuko familia-errenta kalkulatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztea.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4 apartatuan zehaztutako betekizunen,



moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, Programaren ardura duten udal-teknikarien txostena ikusi ondoren eta horren arabera emanen da ebazpen-proposamena, txosten horretan berariaz aipatuko baitira baloratutako salbuespenak.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 6 HILABETE

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☐ BAI ☒ EZ

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorreko 18.1. artikularekin bat, ez da beharrezkoa izanen emandako dirulaguntzak argitaratzea.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuak zehaztea:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Haur onuradunaren jantoki-zerbitzuetatik eratorritakoak, 2025-2025eko ikasturtean.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen J.2 apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☐ BAI ☒ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

- Zakote-ontzi zerbitzua.

- Jantoki zerbitzuaren gastuarekin bat ez datozen bestelako gastuak.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: *Deialdiaren indarraldia hartzen du, hau*



da, 2025-2026ko ikasturtea (2025eko iraila / 2026ko ekaina).

Salbuespenez, aurreko ikasturteetako justifikazioa kontuan hartzen ahalko da justifikatuta datozen eta Nafarroako Gobernuak kudeatutako dirulaguntzaren kudeaketaren menpe dauden kasuetan.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez finantzatu beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Oinarri hauek arautzen dituzten prestazioak beste erakundeek (Nafarroako Gobernua, enpresen hobari sozialak, etab.) emandako laguntzen osagarri izanen dira.

Aurrekoa gorabehera, hezkuntzako behar bereziak izanda ikastetxe arruntetan eskolaturik dauden haurrek Hezkuntza Ministerioari eskatzen ahalko diote laguntza, dagokion deialdian.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.



N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua:

Iruñeko Udalak alde zuzenetik ordainduko du 2025eko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zenbatekoa, eta 2026an bigarren zuzenetik ordainduko du 2026ko urtarritetik ekaina arteko eperako, zenbatekoa dirulaguntzak emateko deialdi honetan ezarritakoarekin bat kalkulatuta.

Dirulaguntzak kasu-baseraz zehaztutako entitate kudeatzaileei ordainduko zaizkie (ikastetxea, gurasoen elkarteak edo jantoki zerbitzuaren kudeatzaileak), eta horiek, behin dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen ondoren, onuradunei banatu beharko dizkiete, gehienek ere hilabeteko epean, aurretik ez badute.

Behin 2025eko irailetik abendura bitarteko eskola-aldia bukatuta, eta deialdi honen 1. apartatuan adierazitako egiaztagiriak aurkeztuta, beranduenez 2026ko urtarritaren 16an, Iruñeko Udalak 2025eko irailtik abendura bitarteko eskola-aldirako emandako eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoa ordaindu edo ordaintzeko da.

Aipatutako ordainketa edo ordaintzea horiek 2025-2026ko ikasturteko hurrengo eskola-aldirako (2026ko urtarritetik ekainera) dirulaguntzen alde zuzenetik ordaintzeko jasotzeko da. Era berean, 2025eko iraila-abendua aldi zuzenetik ordaintzeko, kontuan hartutako diru, dagozkion justifikazio-argazkiak aurkeztu ondoren, 2024-2025eko ikasturtean 2025eko urtarritetik ekainera bitarteko aldirako hasieran emandako zenbatekoak dagozkien abontuak edo ordaintzeko. Salbuespenez, bi urte horietan kontuan hartutako deialdi honetako 1.2 apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoa.

Ordaintzeko ezin bada egin, entitate kudeatzaileek egin beharko dute zenbateko horien ordainketa.

Nolanahi ere, 2026ko urtarritetik ekainera bitarteko eskola-aldiaren dirulaguntzaren ebaluazioa eta/edo ordainketa ekitaldi bakoitzean dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikorik izatera behartzen duen baldintza etengabekoan epean ordaintzeko da.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izan ezaz ordaindu pertsona edo entitate onuradunei ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebaluazio batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzeko:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:



Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

Entitate kudeatzaileak ikastetxe bakoitzean ezarriko dira, eta ikastetxeak beraiek, gurasoen elkarrekin edo jantokiaren enpresa kudeatzaileak izaten ahalko dira. Kasu guztietan agiri bat beteko da horretarako.

Entitate kudeatzaileek jantokien kostua eta benetako bertaratzea egiaztatu beharko dute. Halaber, ikasturtean zehar entitate kudeatzaile horiek jakinaraziko dituzte hala gurasoek zein tutoreek haurrak jantokira ez joateko emandako "baja-aurreabisuak" nola dirulaguntza jaso baina jantokira joan ez diren ikasleen kasuak.

Justifikazio-ondorioetarako, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, apartatu honen 2. puntuan adierazitako epearen barruan:

1.- Eskolako jantokira bertaratu izanaren fitxa-egiaztageria, non zehatz-mehatz adieraziko baita ikasle bakoitza zein egunetan joan den, benetan, eskola-jantokiari dagokion eskola-aldian.

2.- Eskola-egutegia.

3.- Eskola-jantokiaren eguneko batez besteko kostua.

4.- Ordainketa-gutuna, ikasleek jantokian bazkaldu ez duten egunei dagozkien kopuruen itzulketarekin.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Entitate kudeatzaileek (Ikastetxeak, guraso elkarrekin edo eskola-jantokietako kudeatzaileak) dagokion justifikazioa igorri beharko diote Komunitate Ekintzako Alorrari.

- 2025eko irailetik abendura bitarteko aldirako: 2025eko urtarrilaren 16a baino lehen.

- 2026ko urtariletik ekainera bitarteko aldirako, 2026ko ekainaren 30era arte.



O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

III.A. eranskina. Interesdunei argibideak.

IV. eranskina. Hitzarmena entitate laguntzaileekin